

NORBERE BABESERAKO EKIPOAK (EPIak)

Norbere Babesteko ekipamenduak -NBE- babes kolektiboko neurriekin edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozedurak baliatuz murriztu ezin izan diren langileen segurtasun edo osasun arriskuak daudenean erabiliko dira.

NBE horiek haien erabilera eskatzen duten arriskuen aurrean ongi babestu beharko dute, eta ez dute beharrezkoak ez diren molestiak edo arrisku osagarriak eragingo.



NBEAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

- NBE babesa ematen duen arriskuari aurre egiteko egokia dela ziurtatzea.
- NBE nahitaez erabiltzea hala ezartzen duten lanetan.
- behar bezala jartzea eta doitzea, jasotako jarraibideei jarraituz.
- - Ekipamenduaren mugak kontuan hartzea eta egokia denean soilik erabiltzea, NBEen fabrikatzailearen jarraibideei edo fabrikatzaileak emandako informazio-dokumentazioari jarraikiz.
- Eramatea arriskupean egon bitartean eta nahitaezko erabilera ezarrita duten guneeetan.



Ikusmena
nahitaez
babestu



Burua nahitaez
babestu



Belarria nahitaez
babestu



Arnasbideak
nahitaez
babestu



Oinak nahitaez
babestu



Eskuak nahitaez
babestu



Gorputza
nahitaez
babestu



Aurpegia
nahitaez
babestu



Nahitaezko
Norbere babesa
erorikoen aurka



Oinezkoentzako
nahitaezko
babesa

- Egoera onean dagoela kontrolatzea. Oso garrantzitsua da NBE behar bezala mantentzea, garbitzea edo desinfektatzea, eraginkortasuna manten dezan. Horregatik, fabrikatzailearen jarraibideen arabera zaindu behar da.
- NBEa erabili ondoren, utzi ezazu horretarako dagoen tokian.
- Berehala jakinarazi arduradun zuzenari NBE horretan hautemandako akats, anomalia edo kalte oro, zure ustez horrek babesteko gaitasuna galtzea eragiten badu.